


# Euskal kultura

## 2007 - 2013



## Elgarrekin bilaka

Euskal kultur erakunde  
urte anitzetako programa  
Administrazio kontseiluak onartua  
2006ko urriaren 21ean

**Euskal kultur erakundea**

Lota Jauregia - PK 6 - 64480 Uztaritze

Tel. 0 (033) 5 59 93 25 25 - Fax. 0 (033) 5 59 93 25 25

<http://www.eke.org>



**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**  
**INSTITUT CULTUREL BASQUE**

# AURKIBIDEA

	<b>AITZIN SOLASA</b>	<b>2</b>
--	----------------------	----------

## **1** **INGURUMEN SOZIOKULTURALA** **3**

1.1/	EUSKAL HERRIA ANIZTASUN KULTURALAREN AITZINEAN	3
1.2/	LORTU BEHARREKO BIZIKIDETASUN KULTURALA	3
1.3/	EUSKAL KULTURA LURRALDEAREN ERDIAN	4
1.4/	HERRITIK MUNDURA	5

## **2** **EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN HISTORIA ETA GEROA** **7**

2.1/	16 URTEKO ESPERIENTZIA	7
2.2/	EUSKAL KULTURA LURRALDE EGITASMOAN	9

## **3** **EKINTZA ERAGINKORRAK (2007-2013)** **10**

### **3.1/ ONDAREA, SORMEN ITURRI** **10**

3.1.1	Euskal Herriko ahozko ondarea bildu, zaindu eta baloratu	11
3.1.2	Ikerketa etnografikoak lehenetsi	11
3.1.3	Euskal kultura transmititu eta jendea euskal kulturari hezi	12

### **3.2/ SORMENA, KULTURAREN ZERIZANA** **14**

### **3.3/ HEDAPENA, NORABIDE ANITZETARA...** **16**

3.3.1	Euskal artisten hedapena bizkorki lagundu	16
3.3.2	Euskal kultura baloratu komunikabideetan eta teknologia berrien bidez	18
3.3.3	Euskal kulturaren eta mundu ekonomikoaren arteko sinergiak sortu	20
3.3.4.	«Euskal Herria Munduan, Mundua Euskal Herrian» iraunkorki finkatu	22

### **3.4/ BITARTEKARITZA EKINTZEN BIHOTZEAN** **24**

3.4.1	Euskal kultur erakundearen bitartekaritza lana indartu	24
3.4.2	Egitasmoen baloratzeko tresnak alhan ezarri	26

## **AZKEN HITZA** **27**



Datozen zazpi urtetarako euskal kultura garatzeko egitaraua aurkeztu aitzin, Euskal kultur erakundeak garrantzitsuak iduritzen zaizkion ohar batzu egin nahi dizkie dokumentu honen irakurleei :

- 1) Helburua ez da ekintzen zerrenda zehatz baten egitea, baina euskal kulturaren eta bide batez Euskal kultur erakundearen garapen iraunkor baterako ekintza ardatz nagusien orokorki aipatzea. Helburu horietarik abiatuz, Euskal kultur erakundeak bere ekintzak urtero bere partaideei aurkeztuko duen kultura egitasmoan zehaztuko ditu ;
- 2) Bere ekintza propioetaz gain, Euskal kultur erakundeak ehun bat elkarte partaide laguntzen ditu, EKE-ren laguntza eskatu egitasmoentzat. Gure egitasmoa aitzina eramateko, elkarte eta artista horiek beharrezkoak zaizkigu ; euskal kulturaren eragileak dira eta gainera, gure tokian tokiko solaskideak eta partaideak dira sorkuntza, formakuntza eta hedapen mailan eraman ekintza ezberdinetan. Ondorioz, Euskal kultur erakundeak bere lehen misioa jarraitu eta indartuko du, hots diru eta teknika laguntza ematea elkarreei. Denbora berean, galdetuko zaie beren egitasmoak lan honetan zehazten saiatu garen kultura politika orokorrean sartzea ;
- 3) Bere araudien arabera, Euskal kultur erakundeak lehentasuna emanen die euskarazko adierazpen eta ekintzeei, euskara baita euskal kulturaren oinarria eta bere berezitasun handiena ;
- 4) Egitasmo kolektiboa da noski, partaidetza publiko eta pribatu anitz eskatuko dituen, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ; beraz, bitartekaritza kulturala eta artistikoa indartu beharko da Euskal kultur erakundearen baitan berean.



«Batekmila» egitarau berriaren kariatara eta Eusko Ikaskuntza nahiz Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Sailaren partaidetzarekin, Euskal kultur erakundeak ikerketa garrantzitsu bat egin du Euskal Herriko praktika kulturaletaz eta nortasun kolektiboetaz.

Zalantzarik gabe, Euskal Herriko kultura politikoen ondoko orientabideak lan horretan oinarritzen ahalko dira, bereziki euskal kulturari dagokionez.

Xehetasunetan sartu gabe, erran daiteke Euskal Herriaren argazki konplexua ematen duela, berezia bere hizkuntzari atxikia delako eta nortasun sentimendu azkarra duelako, eta anitza sinesmen, kultura praktiken eta elkarte engaiamenduaren aldetik. Beraz, dena bilakabidean da : lurraldearen nozioa, hizkuntza eta kultura adierazpena eta bereziki nortasun kontzientzia.

### **1.1/ EUSKAL HERRIA ANIZTASUN KULTURALAREN AITZINEAN**

Azken urte hauetan, Euskal Herriak demografia eta sozial aldaketa sakonak izan ditu. Migrazio-fluxu handien ondorioz, gero eta kanpoko jende gehiago Euskal Herrian finkatzen dela, demografia-dinamikak biztanleriaren zahartzea agerian uzten duela, barnekaldeko herri anitz hiri bilakatzen ari direla... Elementu azkar horiek guzkiek eragin handia badute Euskal Herriko hizkuntza eta kultura paisaian. Kultura nahasketa ala kultura aniztasuna errealitatea da eta herri honen nortasuna anitza da ere, lurralde historiko berean euskal herritarrak, euskaldunak, beste kultura komunitate batzuen kideak eta jatorri anitzeko biztanle berriak elkarrekin bizi baitira.

### **1.2/ LORTU BEHARREKO BIZIKIDETASUN KULTURALA**

Horrelako ingurumen soziologikoan, euskal gizartearen erronka komunitate ezberdin horien arteko eta horien barneko trukaketa eta elkar-ezagutze espazioen sortzea da.

Ikuspegi horretarik, gure tokiko problematikak nazioarte mailakoekin bat egiten du, hala nola kultura aniztasunak defenditzen dituen UNESCO-ren Deklarazio Unibertsalarekin. Alabaina, bere bigarren artikuluan azpimarratzen



*du «gero eta aniztasun gehiago duten gure gizarteetan, beharrezkoa da elkarreragin harmonikoaren eta elkarrekin bizitzeko gogoaren bermatzea kultura nortasun anitzak, ezberdinak eta dinamikoak dituzten pertsonen eta taldeen artean»*

Alabaina, iduritzen zaigu euskal kultura funtsezko bektore bat izan daitekeela bizikidetasuneko jendarte harremanen eraikitzeke euskal herritarren eta kanpoko jendeen artean, euskaldunen eta erdaldunen artean, hiritarren eta baserriarren artean. Segur gaude bere adierazpide propioen (euskara) eta unibertsalen (dantza, kantua...) bidez, euskal kultura bakoitzaren ezberdintasunak eta gaitasun sortzaileak integra ditzakeen Euskal Herriko biztanle guzien erreferentzia amankomuna izan daitekeela.

Baina horren lortzeko, kultura horrek erakargarria eta hurbil-erraza izan behar du, bereziki mamiari dagokionez. Euskarari eta euskal kulturari buruzko gogoia sortarazi behar dugu, bereziki hirietan.

Ondorioz, egitasmo honentzat, ekintzak antolatzerakoan, indar berezia eginen dugu gure kultura ahalik eta jende gehienentzat hurbil-erraza izan dadin, bereziki komunikazio eta bitartekaritza mailan.

### 1.3/ EUSKAL KULTURA LURRALDEAREN ERDIAN

Kultura arrangurek Euskal Herri mailako garapen egitasmo baten ardatz guzietan agertu behar dute. Alabaina, kultura guziak bezala, euskal kultura ekonomia eta sozial garapen faktore bat da, bai eta bakoitzaren garapen faktore bat noski.

Parte-hartzearen edo ezagutzearen bidez adierazpide berrietan lan egin eta parte hartu nahi duen publiko zabal bat biltzen du.

Euskal Herri dinamiko baten eta bere nortasunari azkarki lotua den herri baten irudia azkartzen du.

Hortarako, lurraldeek elkar antolatu behar dute kultura mailan, ez bakarrik ikusgarri handien ekartzeko, baina ere biztanleek beren herriko edo kantonamenduko kultura bizian parte harrarazteko.

Beraz, herriek, herri elkargoek eta kantonamenduek dinamika honekin bat egin behar dute ekintza bideen finkatzeko tokian tokiko kultura eragileekin, hala nola lurraldearen zerbitzuko egitasmo egokia eraikiko duten kultura zentroekin eta lurralde eszenatokiekin.

Bestalde, egitasmo kolektiboak lagundu behar dira ere jakinduriak gehiago partekatuz, haurren formakuntza eta heziketa artistiko mailan adibidez, edo ekipamendu amankomunen erabilpenarentzat gertakari handiago batzuentzat.

Azkenik, osagarritasun eta elkarrekikotasun izpiritu batean, kostaldeko hiriek



elkartasuna erakuts dezakete beren lurraldeetan programatu ikusgarri batzu barnekaldeko herrien esku utziz, edo gaitasun batzu sarean ezarriz, hala nola arte edo musika sailetan.

Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren baliabide zentro bat izaten segituko du. Era berean, kultura politika orokor bat eramaten jarraituko du tokian tokiko egituren partaidetzarekin.

#### 1.4/ HERRITIK MUNDURA

Euskal kulturak aldaketa sozio-ekonomiko eta kultural handietara egokitu behar du, bai herri mailan, bai mundu mailan ere.

Alabaina, globalizazioak aukera eta erronka berriak ekartzen ditu kulturarentzat eta kultura politikentzat.

Bizkitartean, globalizazio joera honek fenomeno kontraesankorrak eragin ditzake gurea bezalako kultura berezientzat :

*- badakigu , eragin ezberdineko bi kultura harremanetan direlarik (akulturazioa), batek (nagusiak) bestea ahuldu edo desagertaraz dezakeela ;*

*- ber denboran, kultura aniztasunak norberaren nortasun eta kontzientzia etnikoa aberasten du, eta beraz, kultura gutxitu bat mantendu eta gara daiteke.*

Kultura batek bizirik egon nahi badu, munduko gora-beherei egokitu behar du. Baina denbora berean aski azkarra izan behar du besteei irekitzeko bere arima galdu gabe, tradizioaren eta aldaketaren erronka berrien arteko oreka baten atxemateko.

Euskal Herrian, etengabe landu behar ditugun osagai amankomunak baditugu (hizkuntza bat, ondare historiko eta kultural bat, adierazpide artistikoak, bizitzeko eta besteen gana joateko modu bat), etorkizuna oinarri horretan eraiki beharko baitugu.

Eta geroari buruzko erronka horren irabazteko, besteen kultura ulertzeko parada eskainiz norberaren kultura aberasten duten ideiak, jakinduriak, sorkuntzak batu behar dira.

Gainera, aisialdiaren industriak eta multinazionalak mundu guzian zabaldu kultura ekoizpen berdinen hedatzearen arriskuaren aitzinean, borondatezko ekintzak antolatu behar dira kultura industrien garatzeko euskal adierazpideen mailan, informazio eta komunikazio teknologia berriak baztertu gabe, gure



kultura eskubideen defendatzeko eta aniztasun artistikoa segurtatzeko biztanlegoarentzat .

Azkenik, lurralde baten garapen iraunkorrak bere inguruko gogoetan maiz ahantzia den kultura arloa kontutan hartu behar du. Horrek eskatzen du gure kultura gure hurrei (bereziki heziketa artistikoaren bidez) baina ere publiko zabal bati helaraztea, beren bizi guzian formakuntza jarraiki eta aberaste kultural prozesu batean inplika daitezen.

Horregatik, zubiak sortu behar dira besteak beste kultura munduaren, erakaskuntzaren eta ikerkuntzaren artean, loturak asmatu tokiko kulturen eta kanpoko kulturen artean.

Bakoitzak parte hartu behar du lan handi horretan, Euskal Herriko biztanleen kultura eta hizkuntza beharrei erantzuten dien egitasmo kolektiboa dela gogoan atxikiz.



Euskal kultur erakundea 1990ean sortu zen. Bere araudiaren 4. artikulua arabera, bi helburu nagusi baditu :

- Sustengu aktibo eta sortzailea ekarri euskarari eta euskal kulturari ;
- Alor guzietan goi-mailako kultura ikerketa eta trukaketa egitura bat izan.

Euskarazko adierazpideei dagozkien iharduera sailetan esku hartzen du, hala nola literaturan eta argitalpenean, antzerkian eta bertsolaritzan, entzun-ikusezkoan, dantzan, kantuan eta musikan, arte plastikoetan, ondarean eta ingurumenean, euskal kiroltan.

Konkretuki, Euskal kultur erakundea teknika eta finantza-partaide da, kide diren (100 elkarte-kide gaur egun) tokiko kultura elkarteek eraman egitasmoentzat, baina bere ekintza propioak antolatzen ditu ere.

Estatuak (Kultura Ministeritzak), Pirinio-Atlantikoetako Departamenduak, Akitaniako eskualdeko Kontseiluak diruztatzen dute, 146 herri biltzen dituen euskal kulturaren aldeko herriarteko Sindikataren eta urte batzuetako hitzarmen baten barnean, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarekin. Laguntza horiei, baliabide propioak gehitu behar zaizkie, horien artean mezenasgo pribatua.

### **2.1/ 16 URTEKO ESPERIENTZIA**

16 urteetan antolatu ekintza guziei esker, orokorki Euskal kultur erakundeak zilegitasun bat erdietsi du, bai kultura eragileen, hautetsien, eta lurraldeko, Frantzia mailako edo nazioarteko administrazio ezberdinen ganik ; gaur egun, euskal kulturaren garapen iraunkorrerako tresna egituratzaile bat bezala onartua da.

Bataz beste, urteko 850 000 euroko aurrekontuarekin, zazpi pertsonen osatu lan-talde batek eramaten ditu EKE-ren ekintza propioak, ondarearen, ikusgarrigintzaren, euskarazko kultura balorapenaren, teknologia berrien eta multimedia euskarrien edo mugaz gaineko harremanen alorrean, artistentzat eta elkarte-kideentzat ingenieritza lana bermatuz halaber.





Adibidez, 2005ean, Euskal kultur erakundeak :

- 171 ekintza propio eraman ditu ;
- 56 elkarte sustengatu ;
- 76 partaide desberdinekin lan egin ;
- 83 euskal artista programetan parte harrarazi ditu.

Bestalde, obratze nagusien artean, «*Kantuketan*», epe luzerako euskal kantuari eta musikari buruzko egitarau zabala aipagarria da, biziki federatzailea izan baita Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo. Ekintza andana bat antolatuak izan dira egitarau horren barnean : erakusketa interaktibo eta ibiltari bat, ikastaldiak haur eta artistentzat, sorkuntzak eta artista egonaldiak, ekoizpen bibliografiko eta diskografikoak, horien artean Radio Francekin berriki argitaratu CD bikoitza.

Gaur egun, «Batekmila» deitu epe luzerako egitaraua abiatu da, publiko berrien eta bereziki erdaldunen gana joanez euskal kultura baloratzeko xedea daukaten hainbat ekintzekin.

Orokorki, ordezkatzaille lana egin du anitz urtez, bereziki hizkuntzaren alorrean eta hori modu anitzetan.

Hitzarmen bat izenpetua izan da sortu berri den Euskararen erakunde publikoarekin. Sortze honek Euskal kultur erakunde bere lehentasunak berriz zehaztera behartzen du, ekintza kulturala eta artistikoa oraino gehiago bizkortuz. Bere esperientzietaz baliatzen jakin behar du ere (indarrak, ahuleziak,...) aldaketa ezberdinen aurreikusteko eta haiei egokitzeko. Laburbilduz, auto-mugatzen den ber, etorkizuna ukan behar du helburu.

Euskal Herria 2020 lurralde egitasmoaren barne, Mikel Erramouspé gure lehendakariak erran bezala, Euskal kultur erakundeak «***norabide sortzaile eta oparoa***» eman nahi dio euskal kulturari, bere jakinduria baliatuz, euskal kulturaren zeregina eta tokia azkartzeko gure lurraldean marrazten ari den paisaia berrian.



## 2.2/ EUSKAL KULTURA LURRALDE EGITASMOAN

---

Hautetsien Kontseiluak eta Garapen Kontseiluak eskaturik, Euskal kultur erakundeak lehen ekarpen bat egin du euskal kulturaren erronka nagusien zehazteko, «Euskal Herria 2020» gogoetaren kariatara.

Elkarte-kideen eta pertsona lagungarrien parte-hartzeari esker, Euskal kultur erakundeak bi erronka nagusi agertu ditu : euskal kultura lurraldearen hedapen osagai bat bilakarazi, eta euskal kultura munduaren barne kohesioa mantendu eta indartu, helburua delarik, euskal kultura motor bat izatea mugaz gaineko elkarlanari, Kostaldearen eta Barnekaldearen arteko elkarrekikotasunari eta garapen iraunkorrari dagokienez.

Eskemaren abiatzean bere zeregina zer izan daiteken gogoetatuz, eta bere sortzetik lortu esperientziari esker, Euskal kultur erakundeak gogotik lan egin nahi du lau ardatz nagusiri lehentasuna emanez :

- Ahozko ondarea eta euskal kultura heziketa baloratu ;
- Sorkuntzendako sustenguak emendatu ;
- Orokorrean, hedapena gehiago bultzatu ;
- Bitartekaritza lana sakondu.

Azkenik, egitarau berri hau kultura trukaketa eta kurutzatze artistiko politika batean kokatuko da. Naturalki, politika honek tokikoa, nazioartekoa eta unibertsala uztartuko ditu, kultura aniztasunaren laguntzeko munduan zehar, aniztasun kulturalari buruzko UNESCOren Deklarazio unibertsalak dion bezala.



**3.1/ ONDAREA, SORMEN ITURRI****3.1.1 Euskal Herriko ahozko ondarea  
bildu, zaindu eta baloratu**

Ondarea gure arbasoek utzi dizkiguten monumentuak, altzariak, higiezin, lur eta diru-kapitala baino anitzez gehiago da. Trebetasunak (jakinduriak, teknikak, eguneroko gertaerak eta keinuak), ahozko ondarea (hizkuntza, mitoak, leiendak, toponimoak eta beste ahozko ohidura guziak), praktika sozialak (jokoak eta kirolak, bestak, sukaldaritza) eta ekoizpen artistikoak (kantua, antzerkia, literatura, dantza, arte plastikoak, etab.) biltzen ditu.

Gure aitzinekoek utzi dizkigutenez, anitzetan gizon-emazteek itxuraldatu eta moldatu dituztenez, berezitasun geologikoen eta paisaiek, ekosistemek, klima, fauna, landareak, lurreko eta lur-azpiko aberastasunek belaunaldi bakoitzak kudeatu behar duen ondarearen parte dira.

Beste multzo batenganik bereizten duten gizon-emazte multzo baten nortasuna egiten duten osagai material eta inmaterial guziek ondarea osatzen dute.

Datozen urteetan, Euskal kultur erakundeak indar berezi bat egin nahi du Euskal Herrian toki garrantzitsua daukan sail batean : ahozko ondarea eta ondare inmateriala (bizi lekukotasunak, bertsoak, leiendak, atsotitzak, ipuinak, kantuak...)

Erronka gaitza da : ondare baten kultura transmisioa bermatu belaunaldien artean eta belaunaldien baitan, hots kulturala eta soziala den lotura hori iraunarazi eta ahozko ondare hori esperimendazio artistiko berri batzuen arragoa bilakarazi.



### 3.1.1 Euskal Herriko ahozko ondarea bildu, zaindu eta baloratu

#### Aplikazio moldeak :

- Epe luzerako egitarau bat abiatu ahozko memoriaren bilketaz, lurralde jakin batean (abiatzea Behe-Nafarroan 2007an) : elkarrizketak biztanleekin, grabaketak, bideoak...
- Bilduriko baliabideak sailkatu (datu-base bat osatu) ;
- Ahozko artxiboak baloratu : erakusketa ibiltari bat egin, mintzaldiak, hezkuntza ekintzak, internet bidezko hedapena, sorkuntza... ;
- Ahozkotasunaren Zentro baten sortzea lagundu, artxiboen atxikitze, ikertzeko eta baloratzeko.

### 3.1.2 Ikerketa etnografikoak lehenetsi

Ondare ekintzaren koordinatzeko eta sarean ezartzeko beharraz gain, besteak beste EKE-ko Ondarearen Batzordearen bidez, Euskal kultur erakundea ezinbesteko baliabide zentroa da erakunde publiko partaide ezberdinekin zehaztu daitezkeen etnografia ikerketen egiteko.

### 3.1.2 Ikerketa etnografikoak lehenetsi

#### Aplikazio moldeak :

- Ikerketa etnografikoak akulatu Euskal Herriarekin zerikusia duten ondare-gaietarik abiatuz ;
- EKE-ren etnologia gaitasunetatik abiatuz, partaidetzak sortu Euskal Museoa, Irisarriko Ondarearen Heziketa Zentroa, Artxibo zentro berria edo Abbadia bezalako erakunde publiko eta elkarteekin eraman egitasmo amankomun batzuen inguruan ;
- Ingeniaritza eta bitartekaritza lana indartu dagokien elkarte eta erakunde publikoekin ;
- Urtero ikerketa diru-laguntza bat eskaini ondare edo euskal kultura sailean ari diren eta EKE-ko egitasmoekin harreman zuzena duten unibertsitateko ikerlari gazteentzat.



### 3.1.3 Euskal kultura transmititu eta jendea euskal kulturari hezi

*«Heziketa artistikoa eta kulturalak haurren eta gazteen formakuntza intelektuala eta sentsiblea laguntzen du. Bere helburua gaitasun bereziak lortzea da erakatsitako arte sailetan ; ezinbesteko garrantzia dauka kulturen eta arte moten aniztasunaren baloratzearentzat. Norberaren nortasuna egiten laguntzen du eta funtsezko zeregina dauka bakoitzaren kultura nortasunaren eraikuntzan».*

Hori da Frantziako Hezkuntza Ministeritzak eta Kultura Ministeritzak finkatu helburu nagusia.

Noski, eskolaren funtzio nagusia jakitateen transmisioa eta hasierako formakuntza eskaintzea da, baina eskola bera ezinbesteko sarbidea da hezkuntza eta kulturen ezagutzarentzat.

Hemen, Euskal Herrian, garrantzitsua da haurrek eta gazteek beste hizkuntzekin batean euskara ikas dezaten, baina funtsezkoa da ere hizkuntza horretan bizitzeko parada ukan dezaten, bai eskolan, bai eskolatik kanpo ere.

Paraleloki, ez da aski gure ondarea babestea, transmititu behar da ere, eta lehen-lehenik belaunaldi berriei, horien artean euskal kulturaz deus gutti ikasten ez duten haurren %70ei.

Horren erdiesteko, kultura (literatura, bertsolaritza, antzerkia, kantua eta musika, dantza, arte plastikoak, ondarea, etab.) ezagutarazi behar da haurrak sormen egoera batean jarritz.

Horregatik garrantzitsua da haurrei euskal kulturari lotu jakitateen ikasteko eta esperimintatzeko gogoia eman diezaieketen ekintzen antolatzea, bai eskoletan, bai eta liburutegiak, mediatekak eta toki publikoak bezalako gunetan, aisialdi zentroak ahanzi gabe.

Orokorki, kultura heziketa etengabeko ibilbidea da, ikastetxe esparruan mugatzen ez dena baina bizi guzian zehar luzatzen dena. Horregatik, hunkitu behar ditu ere: unibertsitatearen mundua, artisten ingurumena eta orokorki Euskal Herriaren ondarea aiseago ulertu edo obra bat nahiz kultura gertakari bat hobeki preziatu nahi duen publiko zabala. Hots, publiko bat leialdu sorkuntza heziketa prozesu bat abiatuz.

Azkenik, arbasoak dira gure ondarearen lehen iturria, aparteko lekukoak baitira beren hizkuntzaren eta kulturaren jakinduriaren gatik.

Gaur egun, beharrezkoa da jakinduria horien belaunaldi berriei helaraztea.

Euskal kultur erakundea baitezpadako aktore bat da kultura transmisiorako urrats desberdinentzat ; halaber, agintariak onartu baliabide zentro bat bilakatu da, eskolan eta eskolatik kanpoko heziketa artistikoa eta kulturalarentzat, bai eta orokorki euskarazko kultura formakuntzarentzat.



### 3.1.3 Euskal kultura transmititu eta jendea euskal kulturari hezi

**Aplikazio moldeak :**

- Euskal kulturaren ezagutzeko tresna moderno eta ludikoak sortu (liburu tematikoak, euskal literaturaren antologia bezala, adibidez, DVD-ak, erakusketak,...), bereziki eskolan euskal kulturari buruz deusik egiten ez duten haurrentzat ;
- Publiko zabalari euskal kulturaren inguruko (kantua, musika, antzerkia, ondarea,...) formakuntza kit eta euskarri batzu proposatu ;
- Euskal kultura hobeki ezagutzeko inimizazio eta sustatze ekintzak antolatu, liburutegi-mediateketan adibidez (mintzaldi ilustratuak...), edo sortze prozesuan diren artisteekilako topaketak antolatuz ;
- Haurrak eta orokorki publiko zabala sorkuntza artistikoetan eta literatura sorkuntzetan parte harrarazi ;
- Belaunaldi arteko topaketak antolatu adineko jendeen eta hauren artean, eta ekintza horiek baloratu, erakusketen edo teknologia berrien bidez.



### 3.2/ SORMENA, KULTURAREN ZERIZANA

Ondarea, kultura da eta alderantziz. Kulturaren zerizana bera, sorkuntza da. Hemen Euskal Herrian, euskal kulturak bere hizkuntza, hots euskara du oinarri. Haatik, esperientazio berrien bidez berritzen den hizkuntza bat aitzina doa.

Maila orokor batean, eta bereziki euskal kulturari dagokionez, Ipar Euskal Herriko eragile eta artista gehienak amaturrak dira. Horrek bereziki nortasun azkar bati lotu bizitasun handia erakusten du. Baina, denbora berean, garrantzitsua da nahi dutenek profesionalizatzeko parada ukan dezaten.

Artista amaturrek eta profesionalek ez baldin badituzte behar berak ere, bereziki logistikari, administrazioari eta diruari dagokienez, alferrikakoa da bata bestearen kontra ezartzea. Aldiz, egunero sortu behar diren topaketa, esperientzia trukaketa eta eztabaida guneak dira. Loturak sortu behar dira, kultura sail bakoitzean gaitasunak dituztenek egin laguntza ekintzen edo zuzendaritza artistikoen bidez.

Horretarako, euskal sorkuntza artistikoak logistika baliabide guttiegi du. Adibidez profesionalei eta amaturrei zuzendu topaketa, errepika gune bat eskas da.

Bestalde, ohidura biziartzeko modu berritzaileak asmatu behar dira, ikerketari toki gehiago utziz loturen sortzeko arte ezberdinen artean, artisten eta jendeen artean (bereziki artisten eta haurren artean).

Azkenik, ezinbestekoa da besteen gana joatea. Beste kulturekiko jakinminari esker, norberak ikuspegi kritikoa ukan dezake bere kultura propioaz, baldin eta ezagutzea egiazko trukaketa baldin bada, integratzen ari den kanpoko kultura baten ondoan agertzen den euskal kulturarekin.



### 3.2 Sormena, kulturaren zerizana

**Aplikazio moldeak :**

- Laguntza eta praktika artistiko ekintzak proposatu eragile amaturrei, profesional batzuekin edo esperientzia duten amatur batzuekin, baliabide-gune batean oinarrituz;
- Praktika amaturrak eta artista profesionalak lagundu beren egitasmoak segituz ;
- Euskarazko obra berrien idazketa lagundu (haur-literatura, eleberririk, antzezlanak,...), manatze edo lehiaketa batzuen bidez ;
- Artista gazteak begiztatu eta lagundu beren sorkuntza eta hedapen ibilbidean ;
- Esku-hartze fondo bat antolatu epaimahai batek hautatu disko kokeoizpen batentzat, lehen disko baten argitaratzeko ;
- Ohiko euskal kulturaren oinarritu esperimentazio artistikoak sustengatu edo/ta abiatu, besteak beste arte mota ezberdinen arteko loturak sortuz ;
- Trukaketak eta artista egonaldiak antolatu, sorkuntza eta kultura heziketa uztartuz (tokiko jendea, haurrak, adineko jendeak...), eta mugaz gaineko harremanak lagunduz.

Azpimarratzekoa da Euskal kultur erakundeak indar berezi bat egin nahi duela datozen urteetan euskarazko antzerki sorkuntzaren alde, eta bereziki haur antzerkiaren alde. Adibidez, beharrezkoa litzateke gai honi buruzko gogoeta baten abiatzea antzerkilari, erakasle, formatzaileekin... Halaber, orain arte gutti landua izan den euskal zinemaren unibertsoa, geroan sakontzeko dugun sailetarik bat da.





### 3.3/ HEDAPENA, NORABIDE ANITZETARA...

#### 3.3.1 Euskal artisten hedapena bizkorki lagundu

Lehenik, kultura ekintzak ez du kultura ekipamenduetara mugatu behar; herri eta hirietan, jendeen gana eta jendeekin joaten diren animazioak ekarri behar ditu, hori baita hain zuzen erakarri nahi dugun publikoa.

Bestalde, gauza bat argi da : baitezpadakoa da euskal kultura eta bere eragile ezberdinak hobeki ezagutaraztea Euskal Herrian eta bereziki Euskal Herritik kanpo. Baliteke horrek sorkuntza artistikoa laguntzea. Beraz, kalitateko euskal kultura adierazpide baten iraunkorki sustatzeko, beharrezkoa da elkarte eta erakunde publiko partaideen arteko sareen azkartzea eta biderkatzea. Bestalde, harreman berriak asmatu behar dira Frantzia eta Europa mailan, sail honetan berezituak diren hedapen egituren laguntzarekin (Adami, Spedidam, AFAA, ONDA, SMAC...).

Ikusiz bakarrik ekintza konkretu batzuei esker ondorioak ekarriko dituen lan luze bat dela, lehenik euskal kulturaren hedapena azkartu behar da Euskal Herrian eta Akitanian, jadanik lanean ari diren baliabide zentruen bidez (OARA adibidez), eta ondotik Frantzian eta Europan baliatu beharreko paradei buruz egin beharreko ikerketa lan erraldoi bati esker.

Bestalde, partaidetza modu berriak atxeman behar dira, bai eta ahaleen funtzionamendu eta elkartzeen elkartasun batzu, eta osagarritasun bat obra artistikoen hedapenarentzat.

Gainera, mugaz gaineko harremanek jarraituak eta handiagotuak izan behar dute, trukaketa artistiko eta kultura trukaketa egiazko politika bat izan dadin, euskal kultura sustatzen duten hirietako kultura zerbitzu eta elkarteekilako partaidetza hurbil batean oinarritua.



### 3.3.1 Euskal artisten hedapena bizkorki lagundu

**Aplikazio moldeak :**

- Epe luzerako plangintza bat antolatu hedapenaren laguntzeko, bai amaturrena, bai profesionalena, bai Euskal Herrian, bai Euskal Herritik kanpo promozio tresna egokiak ekoiztuz (artisten gida eta diskografiak interneten) ;
- Euskal kultura programazio zabalago batzuetan sartzea proposatu (lurralde eszenak, ikusgarri antolatzaileak, jaialdiak, besta komiteak,...) ;
- Tokiko eragileak memorio kolektiboaren berreskuratzean parte harrarazi herrietan gai edo pertsonai ospetsuen inguruko animazioen bidez (Labéguerie, Larzabal, Dibarrart, Mendiague, etab.) ;
- Mugaz gaineko harremanak azkartuko dituen epe luzerako Plangintza bat antolatu, Bidasoaz bestaldeko hiri, kultura egitura edo elkarte batzuen partaidetzarekin ;
- Beste eskualde edo herri batzuekilako kultura trukaketak lehenetsi, kultura-arteko topaketak antolatuz ;
- Gogoeta sakon bat eraman euskarazko diskoen argitalpenaren eta hedapenaren inguruan (diskoen ko-ekoizpena, adibidez), diskogintzan ari direnen partaidetzarekin.



### 3.3.2 Euskal kultura baloratu komunikabideetan eta teknologia berrien bidez

Geroari begira, teknologia berriek erronka berriak eta paradak eskaintzen dizkio euskal kulturari. Euskal kultura ingurumenaren gaurkotzeko eta garatzeko baliatu behar dira. Baina gure ondarearen eta adierazpide artistiko garaikideen hedapen zabal batek gaitasun berezi bat eskatzen du alor honetan.

Hortaz oharturik, Euskal kultur erakundeak gure kulturaren balorapenerako eta bitartekaritzarako ezinbesteko tresna sortu du : lau hizkuntzatako web-atari bat, egunetik egunera erreferentzia bilakatzen ari dena euskal kulturari dagokionez, bai munduko internautentzat, bai EKE-ko kide diren elkarteentzat ere.

Gaur egun, gure webgunea etengabe garatzen ari da ; Teknologia berriei buruzko sensibilisazio eta koordinazio lan handia abiatu dugu partaide desberdinekin eta loturak baditugu Euskal Herriko eta Euskal Herrikan kanpoko (diasporarekin besteak beste) beste webgune batzuekin.

Ondoko urratsa, tresna horren garatzea izanen da, euskal kulturaren sorkuntzarako eta hedapenerako egiazko multimedia espazioa bilaka dadin, harremanak finkatuz Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo dauden liburutegi-mediateka eta beste gune publikoekin. Horretarako, ezinbestekoa da kalitateko kultura edukin numerikoen sortzea.

Paraleloki, kultura industrien funtsezko sail bat bilakatu diren irratia eta telebista ezinbesteko osagaia dira kultura ahalik eta jende gehienekin partekatzeko. Alor honetan hobekuntza anitz izan baldin bada ere, oraino asko bada egiteko euskal kultura komunikabideetan eta bereziki komunikabide publikoetan ager dadin.

Euskal kultur erakundeak ipar Euskal Herriko elkarte irratia eta telebista egitasmoak sustengatu eta lagunduko ditu, bereziki euskarari eta sormenari lehentasuna emanen dietenak ; beste hedapen sare publikoen partaidetzarekin eraiki beharreko kultura edukinak proposatuko ditu.



### 3.3.2 Euskal kultura baloratu komunikabideetan eta teknologia berrien bidez

#### **Aplikazio moldeak :**

- Kultura balio erantsi handiko edukin numerikoak sortu, euskal kulturaren [www.eke.org](http://www.eke.org) web ataritik ikusten ahalko direnak, bai eta beste terminal batzuen bitartez (CD-ROM-ak, DVD-ROM-ak, PDA morroi pertsonalak , sakeleko telefonoak, MP3 walkmanak...);
- Beila teknologiko bat antolatu teknologiaren bilakaera berriak ahal bezain ongi baliatzeko, kultura eta ondare baliabideen balorazio numerisazioa helburutzat ukanez ;
- Teknologia berrien dimentsio kulturala garatu, sorkuntza eta hedapen tresnak bezala ;
- Komunikabideen partaidetzarekin eta komunikabideentzat, euskal kulturari loturiko euskarri edo ekintza bereziak proposatu (sorkuntza artistikoak, irradi-nobelak,...), eta komunikabide nazionalentzat, baliabide-iturri izan.



### 3.3.3 Euskal kulturaren eta mundu ekonomikoaren arteko sinergiak sortu

Besteak beste, Euskal kultur erakundeak eraman ekintza bakar batzu izan ezik, ekonomia arduradunen eta kultura munduko animatzaileen arteko harremanak aski mugatuak dira oraino. Bizkitartean, enpresek eta kulturak arrangura nagusi bat daukate elkarrekin : sormena eta ekintza azkar batzuen bidez komunikatzeko beharra.

Gainera, enpresen barneko lehen arranguretarik bat bertan lan egiten duten langileen betetasuna denez, euskal kulturaren hedapen toki aproposak bilaka daitezke. Gaur egun, Euskal Herriaren irudia gero eta gehiago aipatzen da adibidez ekoizpen turistikoaren edo elikaduren hobeki saltzeko. Irudi hori ekoizpenen kalitatean, nortasunean, euskararen eta euskal kulturaren oinarritzen da.

Gogoeta bat abiatua da balizko «Euskal Herria» labeleraz. Izapide horrek kolektiboa izan behar du, erran nahi du ekonomia eta kultura munduko eragile ezberdinek gogoeta horretan parte hartu behar dutela eta ideia amankomunak ekarri.

Adibide bezala, turismoa ekintza sail aproposa da euskal kulturaren hedapenarentzat, zeren eta turismo alorrean egin diren aurreikuspen guzien arabera, gero eta gehiago, turistek herri baten ondareari eta kulturari lotu ekintzak eta gertakariak nahiko dituzte.

Ekonomia munduko profesionalek bezala, euskal artistek kalitatea, berrikuntza bilatu behar dute, euskal kulturaren irakurketa berezi bat eskainiz eta gure kulturaren folklorisazioa saihesteko.

Kalitate horrek kalitateko beste edozein ekoizpen bezala lagundua izan behar du. Alabaina, erakunde publikoek eta hedatzaileek, baina enpresa pribatuek ere lagundu behar dute, egitasmo artistikoen eta kulturalen segitzeko edo kultura enpresa barnera sarratzeko (performantzak, arte-obreen manatzea) askoz ere partaidetza eta mezenasgo gehiago garatuz.



### 3.3.3 Euskal kulturaren eta mundu ekonomikoaren arteko sinergiak sortu

#### **Aplikazio moldeak :**

- Euskal kultura ezagutzeko tresnak proposatu sail ezberdinetan (ondarea, kultura,...) partaidetza baten barnean ;
- EKE-ren barnean enpresa laguntzaileen multzo bat sortu, «Euskal kultura eta ekonomia» gaiaren inguruan;
- Ekintza amankomunak proposatu edo/ta antolatu kultura turismo mailan edo Euskal Herritik kanpoko ospakizun handietan ( profesionalen azoketan adibidez);
- Kultura gertakarien partaide izan enpresan berean (sorkuntza artistikoak,...) edo enpresatik kanpo.



### 3.3.4 «Euskal Herria Munduan, Mundua Euskal Herrian» iraunkorki finkatu

Kultura guziek bezala, euskal kulturak ez du bizitzerik esperientziak eta trebetasunak trukatu gabe. Adibide bezala, munduko xoko guzietan, artistek beren hizkuntza berezitasuna eta kultura erakutsi nahi dituzte eta mundu guzian oihartzuna duten joerak sortzen dituzte beste kulturetz aberastuz. Bestetaz inspiratzea norberaren hizkuntzaren eta kulturaren kalitatea indartzeko parada eskaintzen du.

Kultura aniztasunari buruzko Unesco-ren Deklarazio unibertsalaren lehen artikuluan aipatu bezala, «*Trukaketa, berrikuntza eta sormen iturri, kultura aniztasunak (...) gizadiaren ondare amankomuna osatzen du eta onartua eta baieztatua izan behar du oraingo eta biharko belaunaldien onetan*».

Programa honek indar berezia egin nahi du funtsezkoa den kultura aniztasunari buruz.

Munduan zeharreko euskal kultura aipatzean, ez da ahantzi behar euskal diasporak duen presentzia azkarra. Bere kideak ongi integratuak dira bizi diren herrialdeetan (Europar, Estatu Batuetan, Hego Ameriketako, Australian, Asian,...) eta barne-barnetik bizi dituzte euskal kultura eta euskara.

Lan handi bat abiatu behar da oraino lotura gehiago sortzeko, informazioen trukatzeko, ekintza kulturalen eta artistikoen antolatzeko, besteak beste artista egonaldi bidez. Komunikabideek eta teknologia berriek funtsezko zeregina ukan dezakete euskal diasporari zuzendu eta diasporatik datozen informazioen hedatzeko.

Paraleloki, egitasmo amankomunak antolatzekoak dira euskal zentro batzuekin, NABO-ren (North American Bask Organization) partaidetzarekin.

Zabalago, globalizazioaren garaian, kultura aniztasunaren sustapenak, bereziki artista gazteentzat munduko ohidura eta berezitasun artistikoak integratuko dituzten adierazpide artistiko berrien ondorioa izan behar du.

Ondorioz, Euskal kultur erakundeak lehen esperientziak abiatu nahi lituzke Europa Ekialdeko herri berriekin, eta munduko beste herri batzuekin, Frantses Institutuen eta beste erakunde publikoen edo elkarten partaidetzarekin, hala nola UNESCO-rekin, kultura aniztasuna eta kooperazioa laguntzen dituzten egitarau operazionalen kariatara.

Azkenik, EKE-k beste ekintza batzu sustengatuko ditu hala nola adibidez euskarazko testuen edo filmen itzulpena munduko beste hizkuntza batzuetara, euskal kultura hobeki esportatzeko eta zabaltzeko munduan zehar.





### 3.3.4 «Euskal Herria Munduan, Mundua Euskal Herrian» iraunkorki finkatu

#### **Aplikazio moldeak :**

- Kultura trukaketak antolatu euskal Diasporarekin, urte batzuetako ekintza zehatz batzuen programazio bat finkatuz, munduko euskal zentroyen eta beste erakunde batzuen partaidetzarekin hala nola Eusko Jaurlaritzak sortu berri duen Etxepare Institutuarekin ;
- Kultura aniztasunaren eta eskubideen inguruko topaketa eta esperientzia batzuen partaide izan, egitarau amankomun baten inguruan kantu, musika, literatura eta antzerki sailetan, lehen-lehenik Europa Ekialdearekin ;
- Euskal artista gazteen mugigarritasuna sustatu, beste sorkuntza moduen ezagutzeko eta horietan parte hartzeko Europan gaindi (adibidez artista gazteendako europear mintegien bidez) ;
- Euskal obrak munduko beste hizkuntza batzuetara itzultzeko ekintzak sustengatu ;



### 3.4/ BITARTEKARITZA EKINTZEN BIHOTZEAN

#### 3.4.1 Euskal kultur erakundearen bitartekaritza lana indartu

Elkarteen eta Erakunde publikoen partaidetzarekin, Euskal kultur erakundeak bere bitartekaritza lana azkartu nahi du funtsezko lan sakon baten abiatzeko ahozkotasanari buruz, sormenaren laguntzeko, gure kultura ondarea haurrei helarazteko, denbora berean ahalik eta jende gehienei partekaraziz. Noski, Euskal kultur erakundea ez da eta ez du izan behar aipaturiko ekintza sail horietaz arduratzen den bakarra. Egitasmoan eta egitasmoaren arabera inplikatu solaskide eta partaide ezberdinekin konfiantza osoz eraman lan kolektibo baten ondorioa da. Horregatik, topaketak antolatu behar dira eragile ezberdinen ikuspegi, esperientzien eta igurikimenen partekatze.

Horrek bitartekaritza azkar bat eskatzen du :

- Kultura elkarten eta partaide diren Erakunde publikoen artean, sail desberdinetako artista amaturen eta profesionalen artean ;
- Artisten eta ikusgarri antolatzaileen artean, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ;
- Euskal kulturaren eragile ezberdinen eta gazteen artean, bereziki eskoletan;
- Euskal kulturaren eragile ezberdinen eta lurraldeko biztanle guzien artean.

Azken hamasei urteetan gure erakundeak eraman esperientzia ezberdinek presazko bi behar agertzen ditu datozen urteetarako :

- Kultura bitartekaritza baten beharra, gero eta aktibitate gehiago baitira egitasmo puntual edo luzerako kariatara egin trukaketa eta partaidetzei lotuak direnak ;
- Kultura ondarearen eta adierazpide artistiko garaikideen hedapena azkartzeko beharra, besteak beste kultura industrien bitartez (komunikabideak, Teknologia Berriak,...).

Bestalde, kultura bitartekaritzak euskal kulturaren mugak hausten lagundu behar du, ekonomia eta kultura munduen arteko, erakaskuntza, sozial, aisialdi edo/ta kirol sail desberdinen arteko hurbilketei buruz lan eginez.



Azkenik, bitartekaritza lan berezia egin behar da publiko berriei buruz, bereziki hirietan bizi diren erdaldunei buruz. Alabaina, Euskal Herriko biztanleen %70a baino gehiago kostaldean edo hiritik hurbil bizi da. Ondorioz, euskal kulturari (literatura, kantua, antzerkia, dantza, bertsolaritza, arteak,...) lotu mikro-guneak okupatu behar dira kostaldeko hirietan, irekitze eta bizikidetasun izpiritu batean.

Beraz, Herriko Etxeetako kultura zerbitzuekilako, auzotegien etxeekilako, kultura eta kirol elkarteekilako partaidetza ezinbestekoa da euskal kulturari toki bat emanen dioten ekimen amankomunen eraikitzeke, ahalaz tokiko jendea inplikatu.

Bestalde, bitartekaritza beharrezkoa da ere publikoa ondareari edo sorkuntza garaikideei hezi behar delarik, jendeen eguneroko bizian sarraraziz, hots merkatuetan, plazetan, herriko bestetan, etab.

Bitartekari lan horretan buru-belarri sartu nahi duen Euskal kultur erakundeak euskal kultura ezagutarazteko eta hedatzeko tresnak proposatuko ditu. Tresna horiek gure kultura erakargarriagoa bilakatuko dute gazte eta publiko berrientzat, bereziki erdaldunentzat. Euskal kultura munduko kultura ekoizpenaren osagai bat bezala aurkeztua izanen da eta ez adierazpide folkloriko bat bezala.

Gainera, « Batekmila – Euskal Munduak » deitu erakusketa ibiltari garrantzitsu bat estreinatuko da 2007an eta gertakari horren inguruan, hitzordu andana bat antolatuak izanen dira haurrentzat eta publiko zabalarentzat (mintzaldiak, bisita gidatuak, kontzertuak, etab.).

Erakusketa horrek euskal kulturaren aniztasuna eta berezitasuna erakutsiko ditu : anitza eta unibertsal mota artistikoen eta sortzaileen aniztasunarengatik, bakarra zentzu guzia ematen dion euskarari esker.

Epe luzerako, hiri konzentrazio handia dela eta, ezinbestekoa da euskal kulturaren multimedia espazio baten sorkuntzari buruz gogoetatzea, hiri baten bihotzean edo toki erakargarri batean, tokiko nahiz kanpoko jendeek gure ondare biziaren aberastasuna ezagutzeko parada ukan dezaten.



### 3.4.1 Euskal kultur erakundearen bitartekaritza lana indartu

#### Aplikazio moldeak :

- Elkarteen arteko , artista amaturren eta profesionalen arteko , artisten eta tokiko jendeen arteko topaketak eta solas-guneak erregulariki antolatu;
- Artisten eta elkarteen bitartekaria izan sorkuntzaren, formakuntzaren, heziketa artistikoaren, eta hedapenaren laguntzarako, eman beharreko urrats ezberdinen hoberentzeko ;
- Bitartekaritza azkartu publiko berriei buruz, bereziki Kostaldean, kultura tematiko desberdinei buruzko ekintza zehatzen antolatzeko ekintza plangintza bat finkatuz (merkatal guneak, liburutegiak, unibertsitateak, kultura elkarteak, turismo mundua,...) ;
- « Batekmila-Euskal munduak » erakusketa ibiltari, moderno eta interaktiboa sortu publiko zabalarentzat, bitartekaritza bizkortuz haurrei, adinekoei eta publiko zabalari buruz, hedapen ekintza konkretu batzuen bidez (mintzaldiak, kantua, musika, bertsolaritza, dantza,...) ;
- Partaidetzak bilatu euskal kulturaren multimedia Espazio baten sortzeko

### 3.4.2 Egitasmoen baloratzeko tresnak alhan ezarri

Bitartekaritza partaide diren erakunde publiko eta pribatuak leialduz egiten da. Erakunde hauek sustengatzen dituzten egitasmoen neurtzeko gai izan behar dutelarik. Horregatik, Euskal kultur erakundeak arlo hortan gaitasunak dituztenen babesa ukanen du ekintzen aitzinamendua neurtzeko. Urte bakoitzaren bukaeran, bere aktibitateen ekintzen bilduma eta diru-kontuak eginen ditu, egitasmoz-egitasmo. Horiek bere administralariei eta bereziki diru-partaideei aurkeztuko dizkie.



## AZKEN HITZA

---

Epe luzerako egitarau honek (2007-2013) proposatzen du euskal kultura lurraldearen kanpoko oihartzunaren eta barne kohesioaren osagai bat izatea, kostaldearen eta barnekaldearen arteko elkarrekikotasunari, mugaz gaineko elkarlanari eta garapen iraunkorrari lehentasuna emanaz.

Euskal kultur erakundeak zeregin erabakigarria ukan nahi du ekintza plangintza honen antolaketan, besteak beste bere bitartekaritza lana azkartuz ondarea, sorkuntza eta hedapen sailetan.

16 urtetako esperientzia eta lorturiko gaitasunekin, Euskal kultur erakundeak bere lan eremua handitu behar du, adibidez haurrendako heziketa artistikoaren eta kulturaren inguruan, bai eta ondare inmaterialari, artista amaturren eta profesionalen segitzeari, euskal kultura publiko berriei eta Teknologia berrien bidez baloratzeari edo partaidetzak ekonomia munduan bilatzeari dagokienez.

Azkenik, gure erakundeak mundu mailako trukaketa artistikoen garapenean parte hartu nahi du, Euskal Herria Munduan kokatuz, eta Mundua Euskal Herrian.

Kultura politika garrantzitsu honen aitzina eramateko, nahi eta nahi ez Euskal kultur erakundeak ahalbide (ekonomikoak eta gizatiarrak) gehiago behar ditu, federatzaile lanaren hobeki egiteko elkarte, artista, erakunde publikoekin eta tokiko, Frantziako eta nazioarteko partaideekin.

Beraz, Euskal Herria 2020 egitasmoan buru-belarri sartu nahi du. Alabaina, egitasmo honen erronketarik bat gure kultura ondarearen balorazioa eta transmisioa da. Funtsezko faktorea lurralde baten eta bere biztanleen garapen iraunkorarentzat.

